

## GURE SEMEA EDO ALABA JAZARLEA DENEAN

Ohartzen garenean gure semeetako edo alabetako bat beste pertsona bati jazartzen ari zaiola, ikastetxearekin orpoz orpo lan egin behar dugu, arazoa lehenbailehen konpontzeko. Gehienoi oso gogorra egiten zaigu jakitea gure semea edo alaba indarkeriazko jokaera izaten ari dela. Garrantzitsua da argitasunez eta zehaztasunez jardutea, luzamendutan ibili gabe. Argi gelditu behar da gure familian ez ditugula portaera jakin batzuk onartuko.

Badakigu pertsona batek haurtzaroan indarkeriazko jokaerak izan ditunean, aukera gehiago dituela bere arazoei eta frustrazioei aurre egiteko indarkeria erabilita, bai nerabezaroan, bai helduaroan. Ematen du arrisku handiagoa duela bestelako jarrera antisozial mota batzuk ere izateko. Oinarrizkoa da, beraz, bestaldera ez begiratzera eta arazoari ausardiaz aurre egitea. Kontziente izan behar dugu modu honetan gure seme-alaba laguntzen dugula.

Garrantzitsua da desberdintzea zer den txantxa edo bihurrikeria bat eta zer den jokaera bortitz, iraingarri, erasokor eta sufrimenduaren sortzaile bat. Orain ez gara ari txantxez, jolasez edo "haurren gauzez", jokaera bortitzez ari gara, besteei sufrimendua eragiten dietenak. Delitu aurreko jokaerak, agian delituzkoak ere. Garrantzitsua da ere desberdintzea gatazka baten aurrean edo jazarpen kasu baten aurrean gauden.

### **Zer egiten al dugu halako zerbaitez jabetzen garenean?**

Oso garrantzitsua da lasai egotea, presarik gabe jardutea eta arazoa partekatzea gure bikotekidearekin edo gure konfiantzakoak diren beste heldu batzuekin.

Zer gertatzen den zehaztasunez ezagutzen saiatu, ondoren gure seme-alabak ikaskideekiko jazarpen jarrerak izatearen zergatiak aurkitzen saiatu.

Ikastetxeari entzun, eta egia ezagutzeko prest egon. Baliteke lehendabiziko jarrera gure seme-alaba defendatzea izatea, eta baita gure seme-alabak holako zerbait egin duela ukatzea. Kontuan izan behar da seme-alaba bat defendatzea zuzena dela baina oraingoan defentsa ez dator bat gertatzen ari den errealitatea ukatzearekin ezta eskolari aurka egitearekin ere. Seme-alaba defendatzea hezkuntza on baterako duen eskubidea defendatzea da, eta hezkuntza on batek, batzuetan, neurri zuzentzaileak behar izaten ditu. Hezkuntza gai guztietan, eta honetan are gehiago, aliatuak behar ditugu, ez etsaiak. Komeni da ikastetxearekin lankidetzara jarrera izatea eta ikastetxeari laguntza eskatzea arazoa konpontzeko. Ikastetxe edo institutu berak interes handia dauka arazo horiek konpontzeko eta ikasleak hezteko bakean, errespetuan eta gatazken konponbide baketsuan. Komeni da ikastetxeari gertatukoaren deskribapen bat eskatzea, baloraziorik gabe. Benetan zer da gertatzen ari dena?

Beharrezkoa da gure seme-alabari entzutea. Garbiro galdetzea zer gertatzen ari den edo zer gertatu den. Zergatik egin duen halakorik edo zergatik ez duen egin, nola sentitzen den, besteengan sortu ahal izan dituen sentimenduak... seme-alaba entzunez laguntzen ahalko diogu bere sentimenduak eta ekintzak ez besteen aurka baizik eta bere alde bideratzen. Hobe entzutea baloratu gabe eta argi utziz sartu den arazotik ateratzeko lagundu nahi diogula.

Gerta liteke gertatutakoaren berri izatea beste gurasoengandik edo

eskolatik kanpoko beste pertsona batzuen bidez; bidezkoa da orduan arazoa idatziz jakinaraztea ikastetxeko zuzendaritzari eta normatiban oinarritutako eskuhartze zuzentzaile bat eskatzea. (WEB honetako sarreran ikus dezakezu). Laguntza eskatzen ahal zaio ere, orobat, Nafarroako Hezkuntza Departamentuko Bizikidetzarako Aholkularitzari (eskaera egiteko inprimakia WEB honetan), edo hala badagokio, bere autonomia erkidegoari.

Zure seme-alaba ez justifikatu eta bere jokaeraren errua ez egotzi besteei. Ondokoa jakinarazi behar zaio: **jazarpen jarrera ez dela onargarria familian** eta horrela jarraituz gero izaten ahal diren ondorioak. Zure seme-alaba egiten duenaren erantzule da, eta, ziur aski badaki ez dela ongi jarduten ari. Laguntza emanen diozu jazartzen ari den pertsonaren sentimenduetan jartzea lortzen baduzu. Erruak gutxi laguntzen du, gehiago laguntzen du beste pertsona batzuen sentimenduetan jarri ahal izateak. Webgune honetako gutunetan begiratzeko ahal duzu, ikasleen atalean.

Hasieratik azpimarratu behar zaio ez zaiola inolaz ere onartuko jazarpen jarrerarik, ezta jarrera bortitzi ere. Jarrera horrekin jarraituz gero, egoki da zigortzea. Arazoen eta hobekuntzen jarraipena egin eta partekatu irakaslearekin edo tutorearekin.

Garrantzitsua da erantzukizuna duten heldu guztien erantzun bateratua, batez ere gurasoena. Gurasoen jarrerak koherentea eta irmoa izan beharko luke.

Bestelako ekintzak

Jarrera oldarkorra positiboa den zerbaitera bideratzen saiatu, kirolean

bezalaxe, non taldekideek arauekin bat aritu behar duten. Seme-alabak izaten ahal dituen bestelako gaitasunak bilatzen saiatu eta lagundu horiek garatzen.

Desberdintasunekiko errespetua izaten erakutsi. Partekatu jazarpenarekin haurtzaroan izandako esperientziak.

Azal iezaiozu asertziozko erantzun baten (norberarekiko ziurtasuna, irmotasuna) eta erantzun oldarkor baten (indarkeriazkoa, beligerantea, areriotasunezkoa) arteko desberdintasuna. Bortizkeriarik eta erasorik gabe bere burua defendatzen erakutsi. Lagundu bere ekintzen ondorioak irudikatzen, bai jazarria izan den pertsonarekiko, bai besteekiko, bere buruarekiko eta, baita ere, etorkizunean izaten ahal dituen harremanetarako. Modu zuzenean jardutearen garrantzia.

Kalitatezko denbora gehiago eskaini ezagutzeko zuen seme-alabaren adiskideak eta beraiekin egiten dituen jarduerak .

Familian ondokoak eskaintzen saiatu: errespetu irudi positiboak, pertsonak baldintzarik gabe onartzea eta gatazken konponbide baketsua. Etxean argi geratu behar da pertsona guztiak errespetagarriak direla, egiten dutena alde batera utzita. Baita zuen seme-alaba ere eta, noski, jazarpena pairatzen ari diren pertsonak ere.